



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) • CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2025eko maiatzaren 24an, eguerdiko 12:00etan. Bilkura honen xedea da korporazioa eratzea, Batzarre Nagusiko burua eta buruordea hautatzea, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren (aurrerantzean, HAOLO) 195. eta 196. artikuluetan, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Aezkoako Batzarre Nagusiaren Ordenantzaren 13. eta 14. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

BERTARATUTAKOAK:

Arnesto Berruezo, Alfonso – Barberena Echart, Beñat – Bueno Reca, Carlos – Colomo Cantero, Ana Isabel – Gómez Sanz, Iraide – Merino Iriarte, Juan Esteban – Ubau Galarza, Nere.

Bilkura hasi-eta, idazkariak eratze bilkurari buruzko araudiaren berri eman du, bai eta Batzarre Nagusiko kide izateko eta karguaz jabetzeko beharrezkoak diren baldintzen berri ere.

HAOLOren 195.2 artikuluan eta AJAren 37.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Adin-Mahaia eratu da, honako hauekin osaturik geratu dena: ekitaldian dauden hautatutako adin nagusikoarekin eta txikiagokoarekin, hurrenez hurren, Juan Esteban Merino jaunarekin, lehendakari, eta Beñat Barberena jaunarekin, bokal. Idazkaria korporaziokoa da.

KORPORAZIOA ERATZEA

Adineko Mahaiko kideek hautetsien nortasunaren egiaztagiria egiaztatu dituzte, eta ados daudela ikusi dute.

Era berean, Adineko Mahaiak egiaztatu du bertaratutako hautetsi guztiek bateraezintasun arrazoiei eta dirusarrerak ematen dizkieten edo eman ditzaketen jardueri buruzko adierazpena egin dutela Idazkaritzan, baita beren ondare-ondasunei buruzko aitortpena ere, hori guztia Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Jarraian, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 108.8 artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan aurreikusitako formularen arabera, hautetsiek karguaren betebeharrak zintzo beteko dituztela agindu dute. Aurreko izapideak egin ondorean, bertaratutakoek formalki hartu dute kide kargua, eta, ondoren, hautetsi guztiak bertaratu direla egiaztatu ondoren, Mahaiak, bere presidentearen bitartez, Korporazioa eratutzat jo du.

BATZARRE NAGUSIKO BURUA ETA BURUORDEA HAUTATZEAK

Batzarre Nagusiaren Ordenantzaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, Batzarreko burua hautatzeri ekin zaio, Batzarreko kideen artean bozketa izendun eta sekretuaren bidez.

Hautaturik geratuko da lehenengo bozketan botoen gehiengo osoa lortzen duen pertsona eta bigarren bozketan gehiengo soilak lortzen duena.

Bozketa amaitu eta botoen zenbaketa egin ondoren, honako hau da emaitza:

- Carlos Bueno Recak 7 boto jaso ditu.

Lehenengo bozketan gehiengo osoa lortu duenez, Carlos Bueno Reca jauna hautatu da Batzarre Nagusiko buru.

Ondoren, eta prozedura berari jarraikiz, buruordea hautatzeari ekin zaio, eta honakoa izan da emaitza:

- Nere Ubau Galarzak 7 boto jaso ditu.

Lehenengo bozketan botoen gehiengo osoa lortu duenez, Nere Ubau Galarza anderea Batzarre Nagusiko buruorde izendatu da.

Segidan, Batzarre Nagusiko funtsen kontaketa akta irakurri da, 2025eko maiatzaren 24koa, kargua utzi duen Batzarre Nagusiko buruak eta kontu-hartzaileak sinatua. 1.017.170,36 euroko (milioi bat hamazazpi mila ehun eta hirurogeita hamar euro eta hogeita hamasei zentimo) izakinak daude.

Beste aztergairik ez dagoenez, bilera bukatutzat eman da 12:30ean. Akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, ziurtatu egiten dut.